



## Uztaila paradisuan



### Pili Kaltzada\*

**U**ztailaren 1a. Goizeko zortziak eta Baionako René Cassin Lizeorako bidean goaz. Eguna euritsu esnatu da, baina eguerdirako eguzkia ikusterik izango dugula entzun dugu irratian. Autopistan ez dugu jende askorik aurkitu, baina hiriburura sartu orduko ikusi ditugu aurtengo egoitza berrira eramango gaituzten kartelak. Gaur goizean hasiko dira XXIV. edizioko Udako Ikastaroak. Programari begiratu eta Manex Gohienetxek sarrerahitzaldia emango duela irakurri dugu. Zalantzarik gabe, beste garai bat izango du gogoan Gohienetxek, bera izan baitzen UEUK izan zuen lehen Lehendakaria; gurdari tiratzea egokitu zitzaion 1973. urtearen bueltan; Euskal Herriak inoiz unibertsitate-terik izango zuela pentsatze hutsa ia delituztat hartzen zen garaian. Ez dakigu bere gaurko hitzaldian horren aipamenik egingo duen, baina Baionako Kultur Asteak finkatzeari eta etorkizunerako prestatzeari buruzko hausnarketetan Gohienetxe buru izan zela entzun dugu behin baino gehiagotan; orduantxe hasi zen Udako Euskal Unibertsitatearen hazia ereiten, Katalunian egiten zen *Universitat d'Estiu* hura gogoan zutela. Azalduko al dizkiugu gaurko hitzaldian Gohienetxek kontu horiek?

Iruñetik buelta, lerro hauek idazteko “agindua” etorri zitzaidan. Baionan astebete pasa ostean, hamabost egun eman nituen uztailean Larraona Ikastetxean, Udako Euskal Unibertsitatearen bihotzean, eta hango berri zuei emateko eskatu zidaten erredakzio-kontseiluan. Itzuli orduko egin izan banu, zalantzarik gabe ez nukeen ondokoa zirriborratzerik lortuko; beste erabateko kontakizuna osatuko nukeen, beroagoa, gozoagoa apika. Izan ere, egunak pasatu ahala, horko irudiak lausotuz joan dira eta orain, hilabete batzuk irangan direlarik, kontakizuna hotzagoa izango dela iruditzen zait. Ez dakit. Hitzez hitz osatuko da UEUren XXIV. edizioari buruzko kronika “sentimentala”.

Goizeko bederatzietarako dena prest dago. Ikasleei harrera egitea baino ez da falta eta ate ondoan jarri gara, etorriko ote diren edo begira, urduri. Eta hasi dira etortzen. Une honetan ez dakigu zein izango den astea amaitzerako lortuko den kopurua eta “errekorra” hurrin samar ikusten da oraindik. Baina beteko da: XXIV. edizioan inoiz baino ikasle gehiago bertaratuko da Baionara; 150 inguru. Jendea erakartzeko moduko egitaraua antolatu da aurten. Jakina denez, bi egoitza ditu UEUK udan zehar eta bietan mugaz bi aldeetako ikasleentzat interesgarriak diren ikasgaiak eskaintzen dira; ez da banaketarik egiten, ez da banaketa hori gerta dadin bilatzen. Natur Zientzietako egitaraua aztertzea besterik ez dago UEU-ren oinarri ideologiko horretaz ohartzeko. Izan ere, hezkuntza-sistemaren erreformak sortuko dituen behar berrietara egokituz, “*Euskal Herriko Paisajearen Bilakaera*” izenburuko ikastaroa antolatu zen aurten Baionan, bereziki Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH) lan egingo duten profesionaleei begira; material didaktiko berria euskaraz sortzea eta talde-lanean kezka berriei irtenbidea ematea izan dira ikastaro honen lorpenik garrantzitsuenak. Astebeterako, ez dago gaizki...

Eguerdiko 12ak Renè Cassin Lizeoan. Bazkaltzeko ordua da Iparraldean. Aurten egoitza berria estreinatu du UEUK, erosoagoa, egokiagoa, jantokia, taberna, ikasgelak eta logelak integratu dituena. Lagunarteko giroa sortzeko ere lagungarria gertatu da. Antolatzailerik pozik daude; bazkaltzeko orduan mahai guztiak beteta ikustea ez baita urtero gertatzen. Jendeak erantzun dio UEUren deiari eta ikastaroak arrakastaz burutu dira. Larunbatean, uztailaren 6an, Mikel Laboaren kantaldiak amaiera emango die Baionako Udako



Urteroko ohitura berrituz, aurten ere Iruñeko Udaletxeak harrera ofiziala egin dio UEUri. Bi erakunderen arteko sintonia azpimarratzeko eta elkarri eskerrak emateko tenorea izan zen. Ondoren, mokadu bat janean Iruñeko bititza soziala gertuagotik ezagutzetik izan genuen.

Ikastaroei. Ez dakit lehen esan dugun, baina antolatzailerik pozik daude.

### Iruñeko termometroa

Uztailaren 15a da, *Pobre de Mi* eguna Iruñeko sanferminetan. Jaiaren amaiera adierazten duen eguna da festazaleentzat, baina Udako Ikastaroak antolatzen dihardutenentzat egun handia da: bihar irekiko ditu bere ateak Larraonako Ikastetxeak eta, beraz, prestakuntza-lanek luze joko dute gaur. Hala espero genuen eta horrelaxe gertatu zen. Iruñean guztira 800 ikas-ordu baino gehiago emango dira aurten, 30 bat sailek antolatuak. Ez da nolanhiko marka.

Goizeko 8ak Larraonan, astelehena, hilaren 15a. Abiatu da XXIV. edizioko ekitaldirik jendetsuena, Iruñeko Ikastaroak. Eguerdiko 12etan Joxe Azurmendik eskainiko du sarrera-hitzaldia —*Karlos Santamariaren pentsa-*

*mendu pertsonalista* aukeratu du abiapuntutzat— eta ondoren, 15 egunko ihardunari ekingo zaio. Ikasleak hasi dira etortzen, poltsa eta motxila astunak bizkar gainean dituztelarik. Bero egiten du Iruñean eta hau hasiera baino ez da izan.


Larraonatik 200 bat kilometrora, Leioako Kanpusean, Euskal Herriko Unibertsitateko (EHUko) Gobernu Batzordeak bilera du gaur iluntzean. Aztergaien artean, homologazio-bidean jarriko diren ikastaroen zerrenda dute; onartu edo atzera botako dutena. Udako Euskal Unibertsitateak 25 ikastaro aurkeztu dizkio EHUri, homologa ditzan. Asteartera arte ez dute erabakiaren berri emango: EHUK homologatu egin ditu 25 ikastaroak. Hainbat hilabetetako lanaren emaitza da erabaki hori eta etorkizunerako oso urrats garrantzitsua dela adierazi zigun Mikel Aizpuruk, UEUKo Zuzendariak: “*EHUko Gobernu Batzordeak guk aurkeztutako ikastaroak bere*

homologazio-sistamarako ontzat eman ditu eta hori UEUren onarpenzat ulertu behar dugu. UEUren iharduera aintzat hartzen dela eta ikastaroen balio akademikoa onesten dela esan nahi du horrek.”

Erabaki horren garrantziaz jabe gaitezen, adibide bat jarri zigun Mikel Aipuruk. “Hautapen librekoak diren ikasgaien sistema dela medio, ikasleek unibertsitateak eskainitako ikasgaietatik edo unibertsitatetik kanpoko ihardueren artean aukera egin dezakete. Hemendik aurrera, EHUKo ikasleek oso kontuan izango dituzte UEUK antolatzen dituen ikastaroak; EHUK berak eskaintzen dituen zenbait ikasgaien baliokide izango baitira. Eta jakina denez, fakultateek ez dute ordutegiak ikaslearen beharretara egokitzirik; hortaz, udako egunak aprobetxatuz ikasketak osatzeko aukerak mesede handia egingo die ikasleei”.

Jakina denez, planifikazio berriak hainbat ikasgai-mota aurreikusuten ditu; batetik, derrigorrezkoak diren ikasgaiak daude, batik bat karreraren lehen bi urteetan nagusi direnak. Horiez gain, hautazko ikasgaiak daude, lizentziatura bakoitzaren barruan multzo berezi bat; eta azkenik, hautapen libreko kredituak daude, ikasleak era ezberdinetan lor ditzakeenak: lizentziaturako ikasgaien artean, beste lizentziatura batzuetan, nahiz unibertsitatetik kanpoko ihardueretan. Azken multzo horretan izatea lortu du UEUK aurtengo ikastaroetarako. Udako Ikastaroak hasi berriak ziren artean, berririk garrantzitsuena iritsi zenean. Gero, homologazioarekin atzera eta aurrera ibili ginen hamabost egun horietan. Ez dakit lehen esan dugun, baina antolatzaileak pozik zeuden.

Larraonako korridorea eremu zabala eta balioanitza da. Izan ere, ikasgeletatik kanpo antolatzen diren ihardueren berri emateko edo saio osagarriak burutzeko gune aproposa da. Egunk igaro ahala, korridoreak gauzez eta jendez bete ziren. Ondoko argazkian, Natur Zientzietako partaideek antolatutako aminalia arrastoen erakusketa ageri da.



## Eskaintza biribiltzen

Aurtengo ikastaroetan disziplinarreko saio asko burutu ditu UEUK, bai Iruñean eta bai Baionan. *Historia* eta *Pedagogia*, *Ekonomia* eta *Zuzenbidea*, *Musika* eta *Antzerkilaritza*, *Musika* eta *Bertsolaritza*... Ikasgaiak finkatzeko izan ere, interesa jo da irizpide nagusitzat eta disziplina desberdinen arteko koordinazioa zaila bada ere, emaitza oso ona izan dela esan digute. Aurtengo maila akademikoa bestalde, nahikoa altua izan bide da. Hori adierazten du inoiz baino doktore gehiagok parte hartu izanak, horrek ikastaroen balio zientifikoa bermatzen duelako. Ikastaroetan urtean zehar “detektatu” diren kezkek isladatu nahi izan dira eta horren ondorioz, egitaraua erabat “gaurkotua” geratu da. Aurtent hiru ikastaro berri antolatu dira Iruñean: *Arkitektura*, *Administrazioaren Hizkera* —IVAPen laguntzaz aurrera atera dena— eta *Web orriak*; hiruretan emaitza bikaina eman dute ikasleek eta irakasleek, eta arrakastatsu suertatu direnez, datorren urtean ere ikastaro berririk izango da: nekazaritzaren ingurukoa. Horrez gain, Fisikako ikastaroa aste-betez soilik egitea motz samar geratu dela eta, datorren urtean bi asteera luzatzea proposatu dute, oraingoz erabakirik ez badago ere.

## Eta bukaeran, topa!

Ohartuko zinetenez, arrakasta hitza behin baino gehiagotan aipatu dugu jadanik; antolatzaileek arrakasta hitza erabili baitzuten hitzetik hortzera azken eguneko balorazioa egitean. Landu eta findu beharreko gauza asko dago oraindik, baina oro har, aurtengo ihardunaldia bikain joan dela esan daiteke. Hona hemen aurtengo izarra: partaidetza; inoiz baino partaide gehiago izan baita aur-



## IRUÑEKO DATU ESTATISTIKOAK

### SEXUA

Emakumezkoak	% 53
Gizonezkoak	% 47

### ADINA

< 20 urte	% 12,2
21-25	% 24,7
26-30	% 19,3
31-35	% 16,6
36-40	% 10,4
41-50	% 5,2

### HERRIALDEKA

Araba	% 9,1
Bizkaia	% 35,4
Gipuzkoa	% 38,9
Iparraldea	% 1
Nafarroa	% 12,6
Beste	% 1

### LANBIDEA

BBB/UBI/LHko ikasleak	% 2,3
Unibertsitateko ikasleak	% 34,5
OHoko irakasleak	% 6
BBB/UBI/LHko irakasleak	% 6
Unibertsitateko irakasleak	% 15,8
Euskaltegi-tako irakasleak	% 4,4
Administrazio publikoa	% 8,3
Langabeak	% 5,5

### IKASKETAK

Ez unibertsitarioak	% 3,9
Unibertsitarrak	% 30,6
Erdi-mailako titulazioa	% 7,7
Goi-mailako titulazioa	% 18,8
Doktorea	% 5

### ZENBAT ALDIZ UEUko Ikastaroetan?

Lehen aldiz	% 45,9
Bigarren aldiz	% 13,4
Hirugarren aldiz	% 7,4
Hiru aldiz baino gehiago	% 14,1

### PARTAIDE-MOTA

Irakasle	% 30,4
Ikasle	% 63,3
Bietara	% 3,7
Bestelakoa	% 2,6

ten Iruñeko Larraonan, ia 800 guztira. Horri beraz, Baionako kopurua gehitu behar zaio eta ondorioz, zenbaki historikotik gero eta hurbilago jarri da UEU: ia 1.000 partaide izan dira XXIV. Udako Ikastaroetan. Zorionak!

Partaideei dagokienez, unibertsitate-mailako ikasleak nagusi izan dira aurtien ere (%34,5) eta multzo nagusi horren ondoren, unibertsitateko irakasleak datoz, %15,8 hain justu. Gipuzkoatik (%39) eta Bizkaitik (%35,4) Iruñera joandako partaideak nagusi izan badira ere, Nafarroatik eta Arabatik joandakoen kopuruak gora egin du aurreko urteekin alderatuta. Emakumezkoak oraindik nagusi (%53), baina aldea gero eta txikiagoa da.

Zenbakiak adierazterik ez duten sententzia nagusitu da aurtengo edizioan: gauzak ongi egiten ari dira, hartutako bidea zuzena da, baina lan asko dago oraindik egiteke. Bidean aurrera egin beharra dago euskara eta unibertsitatea benetan uztartu nahi badira, eta zalantzarik gabe, datorren urtea oso garrantzitsua izango da. Urte guztiak dira garrantzitsuak eta desberdinak, baina hurrengoak ukitu berezia eman go dio Udako Euskal Unibertsitateari. Datorren urtean, izan ere, 25 urte beteko dira UEUko lehen talde hura elkartu eta bidea urratzen hasi zenetik, lehen urratsak eman zituela. Azken ihardunaldiek utzi duten zapora gozoa dastatzeko ia betarik gabe, lanari ekiteko ordua da jadanik. Ez dakit lehen esan dugun, baina antolatzaileak egingakoak pozik daude.

\* ZETIAZ - Elhuyar